



2005EKO ZILARREZKO GEHITU SARIA

ELIZA GARA/SOMOS IGLESIA ETA ARNASATURI

Gaur, Gehituko kideok, Aitor Urrestiri eta Loliri, Eliza Gara eta Arnasatuko kideei, hurrenez hurren, 2005eko Zilarrezko Gehitu Saria eman nahi diegu.

Hemen bildu garenontzat pozgarria da sari hau ematea Eliza Katolikoaren barnean heterodoxia ordezkaten duten eta oso hierarkizatua, itxia eta homosexualitateaz hausnartu eta eztabaidatzea galarazten duen erakunde bat aldatzeko gogoia adierazten duten bi pertsonari. Eliza Katolikoak munduan sekulako eragina du eta maitatzeko heterosexuala ez den beste moduak erabat gaitzesten dituzten arau moralak ezartzen jarraitzen du.

Guretzat itxaropentsu gertatzen da Eliza Katolikoaren barnean mugimendua, ausardia eta aldaketarako gogoia eta kemena ikustea. Izan ere, Eliza honen Hierarkiak sexu bereko pertsonak maitatzeagatik edo gure genero identitateagatik baztertu eta kondenatzen gaitu, gure maitatzeko eta sentitzeko era antinaturaltzat jotzen duen morala baliatuta. Hierarkia Katolikoa gizarte zibilean homosexualok besteek dituzten eskubide berberak izatearen kontrako buru nagusia izan da eta gaur izaten jarraitzen du. Haren jarrera, euren fedea bizi eta, aldi berean, euren nortasuna osoki garatu nahi duten gure arteko kristauenganako, bereziki, mingarria da.

Sari hau zinez ematen dizuegu, ausartak zaretelako eta mundu osoan pertsona askori giza eskubideak ukatzen dizkion ortodoxiaren kontra egiten duzuelako.

Sari honek, zuek Elizaren barnean, eragozpenei aurre eginez, Aitorrek jasandakoa kasu, egiten duzuen lanaren errekonozimendua izan nahi du. Izan ere, gizateriarentzat onuragarria da Eliza Katolikoaren barruan aldaketak izatea eta gay, lesbiana eta transexualak onartuak izateko lana egitea. Baita kristau doktrina, hierarkiak ez bezala, ulertzen duten gure arteko fededunentzat ere.

Horrengatik guztiarengatik, benetan eskertzen dizuegu zuen adorea, zuen hausnarketa lana eta barne eztabaida sustatzea. Animatzen zaituztegu zuen jardunean sakontzen eta, hitza baliatuz, gaur egun Eliza Katolikoan nagusi den pentsamendu ofizialaren aurka borrokatzen.

Gizaki garen aldetik, nahi dugu Hierarkia Katolikoak zor zaigun duintasuna eta gure eskubideak, berdintasunean, onart eta aitortu ditzan.

Eskerrik asko

Donostia, 2005eko maiatzaren 18a